

Gasteiz, 2012ko irailaren 7a

## **BEZen ARAUEN ALDAKETA**

2012ko Irailaren 1etik aurrera BEZ-aren zerga-tasa berriak sartu dira indarrean, Estutuko Gobernuak hartutako neurrien ondorioz.

- TASA OROKORRA %18tik %21era aldatu da.
- TASA MURRIZTUA, %8tik %10era.
- TASA ERABAT MURRIZTUA ez da aldatu, eta lehen bezala jarraitzen du: %4.

Nahiz eta Arabako Foru Aldundiak oraindik arau berriak ez argitaratu, hauen betebeharra derrigorrezkoa da.

BEZaren zerga-tasak igotzeaz gain, orain arte zerga-tasa murriztua zuten ondasun- eta zerbitzu-sorta batzuei zerga-tasa orokorra ezarriko zaie.

### **1. Eskola-materiala.**

- 2012ko irailaren 1etik aurrera, ehuneko lauko tasa murriztua eskola-material hauei baino ez zaie ezarriko: albumak, partiturak, mapak eta marrazteko koadernoak. Hortaz, aipatu egun horretatik aurrera, tasa orokorra (%21) eskola-erabilerako material orokorrari aplikatuko zaio; puzzleak eta gainerako jolas didaktikoak barne.

Eskola-liburuei –gainerako liburuei, egunkariei eta aldizkariei bezala– ehuneko 4ko tasa murriztua ezartzen jarraituko da.

### **2. Lore eta landare apaingarriak.**

- Aurrerantzean ere zerga-tasa murriztua (%10) aplikatuko zaie haziei, erraboilei, aldaxkei eta landare-jatorri hutsekoak diren eta lore edo landare biziak lortzeko erabil daitezkeen beste produktu batzuei. Fruta-zuhaitz eta -zuhaikei, baratzekei eta ongailu gisa erabilitako landare usaintsuei ere ehuneko 10eko tasa murriztua egokituko zaie.
- Lore eta landare apaingarriek %21eko tasa aplikatuko zaie; hau da, beren izaera eta ezaugarriengatik apaintze-helburuekin landatzen eta merkaturatzen direnei.

Nolanahi ere, tasa murriztua izango dute (%10) beren ezaugarri objektiboengatik, ontziratuta dauden moduagatik, aurkezpenagatik eta kontserbazio-egoeragatik nekazaritza-, baso- edo abeltzaintza-jardueretan zuzenean, normalean eta modu egokian erabil daitezkeen produktu guztiek.

### **3. Ostalaritzako zerbitzu murriztuak.**

Besteak beste, honako hauek %10eko tasa izango dute: jolas-makinak, zori-makinak, mahai-futbola... dituzten tabernetan edo kafetegietan emandako ostalaritza- edo sukaldaritza-zerbitzuek; bingo-aretoetan, kasinoetan emandako taberna- eta jatetxe-zerbitzuek; ezkontzetan, bataioetan eta antzekoetan kontratatutako musika-emanaldiaren zerbitzu osagarriarekin batera emandako ostalaritza-zerbitzuek.

%21eko tasa zerbitzu misto hauei egokituko zaie: ostalaritza, ikuskizunak, diskotekak, dantzalekuak, barbakoak eta antzekoak, kafe-antzerkiak, musika-emanaldiak daudenean.

### **4. Ile-apainketa zerbitzua.**

Ile-apainketa zerbitzuei %21eko tasa ezarriko zaie.

### **5. Kirola edo gorputz-hezkuntza egiten duten pertsona fisikoei emandako zerbitzuak.**

%21eko tasa aplikatuko zaie, salbuespena aplika dakiekeenei izan ezik: klub nautikoen emandako zerbitzuak; bela-eskolak; kirol-pisten eta -instalazioen erabilera; kirola edo gorputz-hezkuntza egiteko eskolak; kirola egiteko ekipo materialen alokairua.

### **6. Antzezleak, artistak, zuzendariak eta teknikariak.**

Pertsona fisiko diren antzezleak, artistek, zuzendariak eta teknikariak, ikuskizun-aretoetan erakuts daitezkeen zinema-filmen ekoizleak eta antzezlanen nahiz musika-lanen antolatzaileak %21eko zerga-tasa izango dute.

Lehen bezala orain ere, honako hauek egindako zerbitzu profesionalak salbuetsita egongo dira: artista plastikoak, idazleak, egunkarietako eta aldizkarietako literatura-eta argazki-kolaboratzaileak nahiz kolaboratzaile grafikoak, musika-konpositoreak, antzerkigileak, ikus-entzunezko obretan argumentua, egokitzapena, gidoia eta elkarrizketak egiten dituztenek, itzultzaileak eta egokitzaileak, ordain gisa egile-eskubideak jasotzen dituztenak barne.

### **7. Osasun- eta hortz-laguntza, eta sendatze termalak.**

2012ko irailaren 1etik aurrera, salbuetsita ez dauden profesional mediko eta sanitarioek emandako zerbitzuei %21eko tasa orokorra ezarriko zaie.

Era berean, %21eko tasa izango dute gorputz-kaltea ebaluatzeko adituetxostenak egiteak eta pertsona baten osasuna ebaluatzeko ziurtagiri medikoak egiteak, dela bizi-asegurua egiteko aseguru-konpainientzat, dela prozedura judicial batean aurkezteko.

Albaiteroek emandako zerbitzuei eta hirietako bainuetxe-zerbitzuei nahiz sendatze termal, SPA eta zirkuitu termalei ere %21eko zerga egokituko zaie.

### **8. Ikuskizunak.**

Antzerkiak, ikuskizunak, kontzertuak, zoologikoak, filmak, erakusketak (salbuetsita ez badaude), zirkuak, zezenketak, jolas-parkeak eta atrakzioak ikusteko sarrerei %21eko tasa aplikatuko zaie (orain arte, tasa %8koa zen).

Irrati-zerbitzuak emateari eta jasotzeari eta telebista digitalari %21 aplikatuko zaie irailaren 1az geroztik.

### **9. Hileta-zerbitzuak.**

Hileta-zerbitzuek eta haiei lotutako ondasunak emateak tasa murriztua zuten orain arte, baina aurrerantzean %21eko tasa izango dute.

### **10. Etxebizitzak ematea.**

%10eko tasa dagokie. Hala ere, lehen aipatutako Errege Dekretuan badago indargabetu ez den xedapen iragankor bat, eta, haren arabera, 2012ko abenduaren 31ra arte indarrean egongo dela ulertzen da; horrenbestez, emate horietan %4ko tasa erabat murriztua aplikatuko dela ezartzen da.